



Euskararen kutxa

Puntuazioari buruzko dekalogo batera iristeko bidaia

Lorea Arrieta

Hizkuntza-irakasleek zalantzak izaten dituzte arlo askotan, baina puntuazioa bereziki deserosoa egiten omen zaie. Gustatuko litzaieke komari buruzkoak gramatikaren arloko beste edozein zalantza bezalaxe argitzea, baina ez da hala gertatzen. Euskaltzaindiak zeharka baino ez dio heldu gaiari, eta ohiko gramatika- eta estilo-eskuliburuek ez dute puntuazioaz jarduten, puntuazio-marken erabilera-arauez baizik, eta ez modu bateratuan gainera.

Hala, bere zalantzak eta bere ikasle-irakasleenak argitzeko premiak akuitaturik, bidaia moduko bat egin behar izan du Lorea Arrietak. Bidean, gaia sakon jorratu duten hainbat adituren ekarpenak xehatu ditu, eta, bereziki, Juan Garziaren “Joskera Lantegi”.

Arrietak proposaturiko bidaiaren ikusiko dugunez, puntuazioaren gakoak syntaxian bilatu behar dira; joskeran, alegia. Halaxe egin du berak, eta arian-arian puntuazio-sistema bat moldatu. Azken finean, ezin dira aurrez ikusi testuek planteatuko dizkiguten erronka guztiak, baina irizpide gutxi batzuk argi izanda, litekeena da puntuazio-sistema ahaltso bat iristea.

1. Bidaiaren aitzinekoak

No hay otro aspecto del texto tan desgraciado como el de la puntuación, quizás con la excepción del párrafo. Pocos hemos tenido la suerte de que se nos enseñara a puntuar en la escuela, y si se ha hecho, a menudo ha provocado confusiones perniciosas... Muchos libros de lengua y bastantes gramáticas la negligén. No la gobiernan reglas generales y absolutas que puedan

ser memorizadas... Y para mayor sorna, la mayoría fruncimos el ceño cuando se nos corrige un coma, y reivindicamos el derecho a puntuar con libertad.

No es de extrañar, pues, que la mayoría de personas alfabetizadas prescindan de este aspecto del texto o que lo consideren poco importante, y que a los estudiantes les parezca difícil aprender a puntuar formalmente.

[Daniel Cassany, *La cocina de la escritura*, 175. or.]

Cassanyren hitz horiek ondo adierazten dutenez, zorigaiztokoa da puntuazioaren alorra, baita hizkuntza-irakasle on artean ere. Ez digute puntuatzen irakatsi, eta, neurri handi batean, bat egiten dugu puntuazioaren inguruan oso zabaldua dagoen ideia tamalgarri batekin, alegia, pentsatzen dugu koma bat jartzea edo ez jartzea, kasu askotan, kontu subjektiboa dela, estilistikoa, idazlearen arabera.

Gure ikasleek ere, oro har, ez diote garrantzi berezirik ematen puntuazioari. Testuari “jarri” edo “kendu” dakiokkeen zerbait gisa ikusten dituzte puntuazio-markak, aukera estetiko gisa alegia, eta ez testuak berez duen barne-egitura eta barne-antolamenduaren adierazgarri edo erakusgarri gisa. Gainera, puntuazio-marka guztiak ezagutzen badituzte ere, zalantza handiak izaten dituztenez haietako asko erabiltzeko (puntu eta koma, esaterako), puntuazio-sistema mugatua darabilte, eta horrek baldintzatu egiten du haien testuen argitasun-irakurgarritasuna, eta baita haien mezuen eraginkortasuna ere.

Dudarik gabe, gauzak errazagoak izango lirateke arau-sorta jakin eta zehatza balego ondo puntuatzeko. Ikusiko dugunez, ordea, ez dago halakorik; kasu bakan batzuetan baino ez dago araurik puntuazio-marka jakin bat erabiltzera behartzen duenik edo hura debekatzen duenik.

Eta, bien bitartean, irakasleok, gure eguneroko jardunean, ikasleen testuak zuzendu behar ditugu, eta puntuazio-arazoekin egiten dugu topo. Eta ikusten dugu puntuazio-arazo horiek askotan ez direla sinpleak eta harreman estua izan ohi dutela beste hainbat testu-lantegirekin: testua ondo planifikatu eta egituratzearekin, ideiak argi eta zehatz adieraztearekin, etab. Gauzak horrela, ez gara ñabarduretan sartzeraz ausartzen; askotan nahiago izaten dugu puntuazio-gaiari ez heltzea, ez baitugu geure burua nahikoa ziurtasunez ikusten gai horretan. Badakigu gure zuzenketak azaldu eta justifikatu egin behar dizkiegula ikasleei, argi erantzun beharko diegula egingo dizkiguten galderei eta jarriko dizkiguten eragozpenei. Eta hortxe hasten dira gure buruhaustak.

1.1. *Ikasleen galderak puntuazioari buruz*

Demagun esaldi hau atera zaigula ikasle baten testuan:

- (1) Azterketa gainditu zuten ikasleek, ondo merezitako oporrak gozatu ahal izan zituzten.

Litekeena da koma hori zuzenduko lukeen irakasleak ikasleen honako galdera hauek erantzun behar izatea: “Baina, zergatik dago gaizki koma hori? Esaldi hori ahoz esaterakoan, eten bat egiten dugu hor; ez al da zuzena eten hori koma batez markatzea?”.

Ikus dezagun beste adibide bat:

- (2) Laster konturatu zen han ez zuela zer eginik eta jendea mugitzen hasi zela aprobetxaturik, alde egin zuen.

Esaldi horretan eta lokailuaren aurrean koma jarriko lukeen irakasleak, berriz, hauek bezalako galderak erantzun beharko lituzke seguruenek: “Baina, zergatik jarri behar da koma hori? Esaldi hori gaizki dago komarik gabe?”

Galderak, bestalde, beste inoren testuan ikusitako puntuazioaren gainekoak ere izaten dira. Esate baterako:

- (3) Puntuazioa ez da ohiko lantegi izaten, ez eskolan, ez inon, eta, hala ere, puntuazioari buruz diharduten liburu guztiak bat datoz, behintzat, puntu batean: puntuazioak erabat baldintzatu lezake testuaren interpretazioa.

Hori bezalako adibideen aurrean, galderak izan ohi dira: “Esaldi horretan, ez al dira koma gehiegi? Hor ez al dago komaren bat sobran?”.

Halako edo antzeko galderak egiten dizkigute ikasleek, eta zalantzak izaten ditugu. Ez gara seguru sentitzen. Eta segurtasun horren bila, ohiko moduan jokatzeko dugu: zalantzak argitu ohi dizkiguten gramatika- eta estilo-liburueta jotzen dugu. Alabaina, gure eskuliburuek argitzen al dizkigute zalantzak? Zer diote kontsultatu ohi ditugun liburuek puntuazioari buruz? Ematen dituzten azalpenak baliagarriak al zaizkigu ikasleentzako galderak erantzuteko, haien eta gure zalantzak argitzeko? Ikusiko dugunez, askotan kontrakoa gertatu ohi da: eskuliburueta azalpenek eta esaldi-adibideek areagotu baino ez digute egiten puntuazioaren atzean ustez dagoen subjektibotasunaren inpresioa. Zergatik gertatzen da hori?

1.2. Argibide bila: zer diote puntuazioaz gure gramatika- eta estilo-liburuek?

Nire ustez, hizkuntza-irakasleok kontsultatu ohi ditugun gramatika- eta estilo-eskuliburuek oinarriko hutsune bat dute puntuazioa planteatzeko eta azaltzeko erari dagokionez: ez diote heltzen puntuazioari berari, ez dute esaten **zer funtzio betetzen duen testuan** eta **nola**; hitz batean esanda, ez digute puntuatzeko irizpiderik eskaintzen. Guztiz bestela, gramatika- eta estilo-eskuliburueta planteamendu arau-emailea nagusitu ohi da: puntuazio-markak banan-banan hartuta, haien ezaugarri ortotipografikoak aipatu eta, esaldi-adibideren batzuk baliatuta, nola erabili behar diren azaltzen digute.

Testuak egoki puntuatzeko irizpiderik ezean, hala ere, argi formulaturiko arau batzuk izateak gutxieneko segurtasuna behintzat eman beharko liguke. Baina ez da hala gertatzen. Puntuazio-marken erabilera-arauei dagokienez ere, argi beste itzal dago gure gramatika- eta estilo-eskuliburueta: batetik, ez dira arau berak azaltzen batean eta bestean; bestetik, arauen formulazioek berek sortzen dute maiz zalantza; zenbaitetan, bestalde, arau berari buruz ari direlakoan, kontraesanak daude formulazioan edo adibideetan, eta abar.

Egin dezagun proba. Zenbait eskuliburu hartuko ditugu, eta, lana mugatzearen, aztertuko dugu zer dioten komaren erabilerearen inguruan. Zer liburu hartuko ditugun? Bada, hauxe da nire proposamena: batetik, hizkuntza-irakasleok maiz erabiltzen dugun kontsulta-liburuetako bat: *Euskal Gramatika Osoa*; bestetik, bi idazkera-liburu klasiko, puntuazio-arauak ematen lehenetarikoak: klasikoetan klasikoena den Zubimendiren eta Esnaletan *Idazkera-liburua*, 1993koa, eta Eskarne Lopetegiren *Hizkuntza zuzen erabiltzeko arau eta proposamen-bilduma*, urte berekoa; eta, azkenik, beste estilo-liburu berriago bat, *IVAPeko estilo-liburua*, 1995koa.

1.2.1. Idazkera-liburua

Idazkera-liburuan, Zubimendik eta Esnaletan Ortografia izeneko atal nagusian sartzen dituzte puntuazio-markak. “Ortografi marken erabilera-arauak” epigrafearen pean, puntuazioaren inguruko sarerarik gabe, zuzenean heltzen diote koma (,) zer den azaltzeari. Egileek adierazten dutenez, komak erakusten du geldialdia egin behar dela esaldian, eta geldialdiko doinu-aldaketa iragartzen du.

Komari buruzko zortzi erabilera-arau formulatzen dituzte, baina bederatzi ere izan zitezkeen, bederatzi erabilera-kasu aztertzen baitituzte. Hala, hemen, bederatzi arau aipatuko ditut, eta egileek berek baliatutako adibideak erantsiko ditut [*Mitxelena Euskal Idazlan Guztiak* (MEIG) liburutik atereak gehienak].

Lehenengo arauak baztertu beharreko erabilera bat du oinarri. Gai-nontzeko zortzi arauak, berriz, komak erabiltzen diren beste hainbeste kasu aipatzen dituzte.

1. araua. Inoiz ez da koma bakar bat jarri behar subjektuaren eta aditzaren artean.

*Alaba, gaztearen atzetik dabil.

Alaba, orain, gaztearen atzetik dabil.

2. araua. Badira koma tarterako osagarriak eta betegarriak.

Zorionean, gainera, oraingo idazle eta hizlaririk ezagunenen artean ez baitira eskas euskaldun berriak. Egia da, agian, ez direla euskaldun zahar eta betikoak bezain jatorki mintzatuko. [MEIG 28, 45. or.]

3. araua. Elkarren kideko zatiak komaz bereizten dira, elkarren segidan daudenean.

Txotxak bildu, sua piztu, arrautza frijitu, gatza bota eta jan.

Euskaldun trebeak behar dira bai egunkarrietan, bai aldizkarrietan, bai irrastian eta bai telebistan.

4. araua. Esaldi bat argitu edo osatzeko, edota irakurketa samurtzeko, beste esaldi bat tartekatzen zaionean, koma artean jartzen da tartekia (parentesi edo marra luze artean ez bada).

Gogoko izan dut beti, urrutiko sorterrri-minak eraginda bezala, Euskal Herria eta euskaldun jendea, baina batez ere baserria. [MEIG 21, 56. or.]

5. araua. Norbaiti edo zerbaiti dei egiterakoan erabiltzen den deikia koma artean idatzi behar da.

Entzun, Jauna, gure eskaria.

6. araua. Esaldi baten zati nagusiak komaz bereizten dira, baldin eta geldialdia egin behar dela adierazteko beste ortografi markarik ez badaukate (bi puntu, esaterako).

Baina kritikak baditu bere legeak, eta lege horiek ez dira beti gaizki-esatea izan litekeen bezain atseginak. Jorratzen diren obrak irakurri ere egin behar dira, kritikatuak dioenaz jabetu behar da eta irakurleari, kritikoaren iritziaz gainera, eman behar zaio zehazkiro besteak dioenaren berri. [MEIG 28, 129. or.]

7. araua. Komaz bereizi beharreko perpausen tartean ETA juntagailua egokitzen bada ere, jarri egin behar da koma. Batak lotzen duena bereizten du besteak, eta biak beharrezko dira. Jokabide berau hartu behar da EDO, ALA, BAINA eta BAIZIK juntagailuekin.

Europako herrietan zaharrenak izanik, gaztaro gordinean gaude oraindik gauza askotan, eta pixoihaletatik atera gabe ere bai zenbaitetan.” [MEIG 29, 101. or.]

8. araua. Aditz osoa ezkutuan duten esaeretan koma idatzi behar da aditzaren ordezkotzat.

Hilda gero, salda bero.

9. araua. Aditz errepikatua ezkutuan duten elkarren segidako esaldi-zatietan ez dago koma idatzi beharrik ezkutuko aditz bakoitzaren ordezkotzat. Aditz errepikatua ezkutuan egoten da, sarritan, bai edota ez saila elkarren segidan datorrenean.

Ez dizut eskatuko ez urrerik, ez dirurik, ez ondasunik, ez aginpiderik eta ez atsegin-biderik; gizalegeko euskalduna izatea baizik.

tan egin behar diren pausaldi laburrak edo txikiak markatzeko erabiltzen dela. Bederatzi erabilera-arau aipatzen ditu, baina Zubimendiren eta Esnalenean azaldutakoekin konparatuta, aldeak nabariak dira: bada arau-corpus komun bat, bieran aipatzen diren arauak osatua –nahiz eta ez diren berdin formulatzen–, baina Lopetegirenean badira ez-aipatze esan-guratsu batzuk, baita ekarpen eta aldaketa nabarmen batzuk ere. Ikus ditzagun.

Zubimendiren eta Esnalen arauak erreferentzia hartuta, bost dira antzera formulatzen diren arauak:

- [2. araua] Lokailuak-eta, bi puntuazio-markaren artean.
- [3. araua] Enumerazioetan, koma erabiltzen da esaldiko bi zati edo gehiago bereizteko, mota berekoak direnean eta segidan doazenean:

Gaur goizean, azokan, harategian, arrandegian eta okindegian izan naiz.
- [4. araua] Perpausaren barruko esaldiak, koma artean. Parentesi artean edota bi marren artean ere jar daitezke:

Zuk diozun hori, oker ez banago, orain dela urtebete gertatu zen.
- [5. araua] Deikia bi puntuazio-markaren artean jartzen da.
- [6. araua] Koma erabiltzen da klausula bateko esaldiak bereizteko, pausaldia egiten denean.

Kalera bazoaz, eros ezazu egunkaria.
Ezer zaitez, nekatu egingo zara eta.
Bidaia batetik datorrenean, opariak ekartzen dizkie beti seme-alabei eta emazteari.

Zubimendiren eta Esnalen beste hiru arau hauek, berriz, ez dira aipatzen:

- [1. araua] Subjektuaren eta aditzaren artean, koma bakarra ez.
- [7. araua] ETA lokailuaren aurrean, koma.
- [8. araua] Aditz osoa ezkutua duten esaeretan, koma.

Nabarmentzekoa da, bestalde, nola formulatzen duen Lopetegik puntu eta komaren erabilera-arauetako bat, Zubimendiren eta Esnalen 7. araua ekartzen baitu gogora:

- [Puntu eta koma erabiltzen da] Bi esaldi, juntagailuz edo bestela, elkarri lotuta daudenean; baina, aldi berean, lotura hori hain xumea edo estua ez denean:

Horrela bukatu zen hitzaldi zirraragarri hura; eta, ondoren, entzuleak poliki-poliki irten ziren.

Zubimendiren eta Esnalen 9. arauari dagokionez ere, gauza bitxia gertatzen da; izan ere, haiek esaten dutenaren justu kontrakoa esaten du Lopetegik:

- Koma erabiltzen da aditz berbera duten esaldi-segidan elipsia egiten denean:

Idazkariak zortzi telefono-dei jaso ditu; idazkari-laguntzaileak, bost; eta menpekoak, hamar.

Bestalde, Lopetegik arau bihurtzen du Zubimendik eta Esnalek aditz errepikatua ezkutuan duten perpausez ari direla egindako oharra:

10. araua. Bai eta ez bat baino gehiago izanez gero, koma jarri.

Bai tren, bai kotxea, bai hegazkina ere, oso gogoko ditut.

Lopetegik, azkenik, beste bi arau ekartzen ditu:

11. araua. Eta, edo eta ala partikulen ondoren, zenbait kasutan koma jarri.

Gaixorik zegoela eta, ez zen lanera joan.

12. araua. Aposizioak, koma artean.

Abenduaren 28an, Inuzenteen egunean, ederki sartu ziguten ziria.

1.2.3. Euskal Gramatika Osoa (EGO)

Euskal Gramatika Osoak (1995) Zubimendiren eta Esnalen Idazkera-liburura bidaltzen ditu puntuazioa sakon landu nahi duten irakurleak. Komaren erabilerari dagokionez, Idazkera-liburuan bezala, bederatzi arau aipatzen dira, baina ez dira berberak. Konpara ditzagun, orain arte atera ditugun arauekin.

Zazpi arau errepikatzen dira, haien adierazpidea gorabehera:

- [2. araua] **Aposizioan** erabili ohi diren zenbait **juntagailu** eta **lokuzio**, koma artean.

Hau, ADIBIDEZ, ondo dago; HALERE, gehienak txarto daude.

DIRUDIENEZ, txarto daude. Horrek, BERAZ, ez du balio.

- [3. araua] Perpausaren **kideko zatiak** (izenak, izen-sintagmak edo perpaus bakunak) elkarren segidan doazenean, komaz bereizi:

Etxean sartu, arropa aldatu, musika ipini eta sofan etzan zen.

Sokak, iltzeak, oholak... denetarik behar dugu.

Zerrenda baten amaieran azken bi osagaien artean eta juntagailua erabiltzen denean, ez da koma erabili behar. Eta abar esapidearen aurretik, ordea, koma jarri behar da beti. [Arauaren bigarren zati hau ekarpena da; 13. arautzat joko dugu.]

- [4. araua] Esaldi bat argitu edo osatzeko azalpen gisako beste esaldi bat tartekatzen denean, koma artean jarri ohi da. Aposizioak [12. araua] ere, koma artean:

Joxeren lagunak, iaz ezagutu genituenak, bihar etorriko dira.

Maite, besteak ez bezala, berehala etorri da laguntzera.

Azalpenezko esaldia amaieran doanean ere, komaz bereizi ohi da:

Maite berehala etorri da laguntzera, besteak ez bezala.

Telefonoz deitu nion, ez nintzela etorriko esanez.

- [5. araua] Deikia edo bokatiboa koma artean joan ohi da.
- [8. araua] Aditza isilpean dagoenean, koma jarri ohi da:
Nolako zura, halako ezpala.
- [10. araua] BAI edo EZ bat baino gehiago segidan joanez gero, komaz bereizi ohi da:

Ez zegoen ez ogirik, ez ardorik, ez ezer.

EGOk, ordea, ez ditu honako arau hauek aipatzen:

- [1. araua] Subjektuaren eta aditzaren artean, koma bakarra ez.
- [11. araua] Eta, edo eta ala partikulen ondoren, zenbait kasutan koma jartzen da.

Bereziki nabarmentzekoa da nola formulatzen diren 6. araua (esaldi-zati nagusien arteko koma) eta 7. araua (juntagailuen aurreko koma).

- [6. araua] **Menpeko esaldiak** nagusiaren aurretik doazenean eta galdegai EZ direnean, komaz bereizi:

Nahi ez baduzu, neuk egingo dut.

Bera heldu zenean, gu afaltzen ari ginen.

Galdegaia direnean edo atzean jartzen direnean, ordea, ez da komarik jartzen:

Bera heldu zenean konturatu ginen.

Neuk egin dut nahi ez baduzu.

- [7. araua] Baina-ren aurrean koma (edo puntu eta koma) jarri behar da beti:

Hiru litro daude, BAINA hori ez da nahikoa.

EGOren ekarpenzat joko dugu, beraz, 13. araua deitu duguna:

13. araua. <u>Eta abar</u> esapidearen aurretik, ordea, koma jarri behar da beti.

Denetarik dago: sagarrak, laranjak, madariak, eta abar.

1.2.4. IVAPeko estilo-liburua

IVAPeko estilo-liburuan, hamahiru arau aipatzen dira. Haien artean, bi erabilera-debeku dago (bata, 1. araua da, eta, bestea, ekarpena), eta gai-nontzeko hamaika arauak, berriz, komak erabiltzen diren beste hainbeste kasu azaltzen dituzte.

Orain arte aterako arauak oinarri hartuta, hamar arau errepikatzen dira:

- [1. araua] Subjektuaren eta aditzaren artean, koma bakarra ez:
 - *Auzitegiak, epaia eman zuen atzo.
 - Auzitegiak, ezustean, epaia eman zuen atzo.
- [2. araua] Lokailuak-eta, koma artean:
 - Gobernu batek hartzen dituen erabakiak, **ordea**, epe luzera aztertu behar izaten dira.
 - Nire iritiz**, parlamentariak ez dute inolako eskaerarik egin.
- [3. araua] Zerrenda-elementuak bereizteko, koma:
 - Bizkaian, Gipuzkoan eta Araban egingo dira hurrengo hauteskundeak.
- [4. araua] Tartekiak, baita aposizioak ere [12. araua], koma artean:
 - Izangaiek, eskabidearekin batera, honako agiri hau aurkeztu beharko dute **[tartekia]**.
 - Mikel Garmendiak, Hezkuntza eta Kultura sailburuak, aurtengo plangintza aurkeztu dio lehendakariari **[aposizioa]**.
- [5. araua] Deikiak (gutunetan-eta), komaz bereizi:
 - Kaixo, Ander:
- [6. araua] Perpaus nagusiaren eta mendekoaren artean, koma:
 - Oraindik ez dute argitaratu aurtengo lan-hitzarmena, onartu gabe baitago.

Nolanahi ere, kontuz! mendekoa nagusiaren aurretik badoa, eta galdegaia bada:

 - Oporretatik itzultzen direnean hasiko dira lanak banatzen.
- [7. araua] Eta, edo... juntagailuen bidez hitz soilak barik perpausak lotzen badira, jarri koma:
 - Udalbatzak gaur aztertu ditu aurrekontuak, eta mozioak hurrengo baterako utzi ditu [Komarik gabe beste gauza bat uler daiteke].
- [8. araua] Aditzaren ordeza, koma:
 - Argia aldizkaria, denetan interesgarriena.
- [10. araua] Bai edo ez batzuk segidan daudenean, koma:
 - Gure bulegoan ez dago, ez ordenagailurik, ez inprimagailurik, ez deus.
- [13. araua] Eta abar esapidearen aurrean ere koma jartzen da, osagaiak labur-laburrak izan ezean:
 - Interneteko denda batean sartu eta liburuak, bideoak, arropa eta abar eros ditzakezu.
 - Biharko batzarrean erabakiko dugu etxebizitza sozial horiek nola banatuko diren, hau da, orain arteko irizpideak jarraituko ditugun, osatu beharrik dagoen, zein epe izango den etxeotan bizitzeko hasteko, eta abar.

Honako arau hau, berriz, ez da aipatzen:
- [11. araua] Eta, edo eta ala partikulen ondoren, zenbait kasutan koma jartzen da.

Ekarpenak, bestalde, hauexek dira:

14. araua. Datan, toki-izenaren ondoren, koma.

Agurain, 2003ko abenduaren 30a

15. araua. Mintzagaiaren ondoren, koma jartzen da, baldin eta aurreratzen badugu sarbidea emateko ondoko aipamenari.

Kazkabarra, horixe besterik ez genuen behar.

16. araua. Aditza eta osagarri zuzena ezin dira komaz banatu.

*Alkateak esan du, bilera datorren astean egingo dela [Komarik ez].

1.3. Gramatika- eta
estilo-liburuetako
arautegietan,
batasunik ez: zenbat
buru, hainbat aburu

Kontsultatutako gramatika- eta estilo-liburuetan ikusi dugunez, ez dago batasunik komaren erabilera-arauak ematerakoan, ez arauen kopuruari dagokionez, ez arauen formulazioari dagokionez. Eta horrek zalantza eta errezeloa sortzen ditu. Arazat jo daiteke puntuazio-arautegi guztiek aipatzen ez duten arau bat? Esate baterako, arautzat jo daiteke eta lokailuaren aurreko koma jarri beharra? Bestalde, kontsultatutako arautegietan, batean eta bestean, guztira hamasei arau (16) formulatzen dira, eta arautegi guztietan eta berdintsu formulatuta agertzen diren arauak, berriz, lau (4) baino ez dira:

- [2. araua] Koma artean idazten dira lokailuak, hitz eta esapide osagarriak, testu-antolatzaileak, eta abar.
- [3. araua] Enumerazio bat osatzen duten elementuen artean, koma jarri.
- [4. araua] Esaldi barruko esaldiak eta aposizioak [tartekiak] koma artean idazten dira.
- [5. araua] Deikiak koma artean idazten dira.

Bistan da lau arau horiek ez direla nahikoak argi ikusteko puntuazioa (kasu honetan, koma) zer den, zertarako den eta nola erabili behar den. Arazoa areagotu besterik ez da egiten ikusita zenbat adierazpide ezberdin eman litezkeen ustez kasu beraz ari direlarik (bi perpausen artekoaz) [6. araua]:

- *Idazkera-liburua*: **Esaldi baten zati nagusiak** komaz bereizten dira, baldin eta geldialdia egin behar dela adierazteko beste ortografi markarik ez badaukate (bi puntu, esaterako):

Pio Barojak gogoko izan zuen beti Euskal Herria eta euskaldun jendea, baina batez ere baserria.

- *Hizkuntza zuzen erabiltzeko arau- eta proposamen-bilduma*: Koma erabiltzen da **klausula bateko esaldiak bereizteko**, pausaldia egiten denean:

Kalera bazoaz, eros ezazu egunkaria.

- *Euskal Gramatika Osoa*: **Menpeko esaldiak nagusiaren aurretik doazenean eta galdegai EZ direnean**, komaz bereizi.

Bera heldu zenean, gu afaltzen ari ginen.

Galdegaia direnean edo atzean jartzen direnean, ordea, ez da komarik jartzen:

Bera heldu zenean konturatu ginen.

- IVAPeko estilo-liburua: **Perpaus nagusiaren eta mendekoaren artean**, koma jarri:

Oraindik ez dute argitaratu aurtengo lan-hitzarmena, onartu gabe baitago.

Nolanahi ere, kontuz! mendekoa nagusiaren aurretik badao, eta galdegaia bada:

Oporretatik itzultzen direnean hasiko dira lanak banatzen.

2. Bidaiaren norabidea markatzen: ondo puntuatzeko irizpideen bila

Ikusi dugunez, azalpen horien argibidean ez da erraza arau-formulazio zehatzik ateratzea. Eta, orduan, zer egin? Arrazoi dute pentsatzen dutenek puntuazioa subjektiboa dela eta, beraz, idazle bakoitzak bere erara puntuatu dezakeela testua?

Egia da puntuazio-arauak ezin direla guztiz objektiboak izan eta testu-egilearen asmo eta borondate estilistikoen baitan kokatu behar direla neurri handi batean. Baina estiloak, betiere, komunikazio eraginkor baten alde jokatu behar du, komunikaziorako tresna baita. Hortaz, estiloa hautua da, bai, baina komunikazio eraginkorra helburu duten testuetan behintzat, hautu horrek aurrean izan behar du zer ahalmen duen hartzaileak –irakurleak, alegia– testua egoki interpretatzeko. Hautu estilistikoa, hortaz, ez da hautu estetikoa, funtzionala baizik, eta oinarrian du idazleak zer hipotesi egiten dituen irakurleari buruz, zer hipotesi egiten dituen hark dituen baliabide eta ahalmenez testua eta testuingurua prozesatzeko.

Testuaren funtzionaltasunak eta komunikagarritasunak izan behar du, hortaz, hautu estilistiko ororen helburua, baita puntuazioarena ere. Eta halako lotura baldin badago testu baten puntuazioaren eta hura ulertzeko moduaren artean, orduan, pertinentea da pentsatzea litekeena dela erabilera-arau guztiek oinarri-irizpide bat-bera izatea. Eta, hala balitz, mesedegarria izango litzateke teoria bat proposatzea azaltzeko nola funtzionatzen duen puntuazioak eta zer ondorio ateratzen ditugun irakurleok testu baten puntuaziotik diskurtsoa interpretatu ahal izateko.

2.1. Lehen portua: puntuazioaren funtzioak aztertzen

Has gaitzeko, beraz, hasieratik. Puntuazioaz hitz egiteak ezinbestean dakar testu idatziez hitz egitea eta, hortaz, idatzizko komunikazioaz hitz egitea. Ahozko komunikazioan, hitzez aparte, intonazioa eta pausak baliatzen ditugu mezuen esanahia helarazteko. Idatzizko komunikazioa lortzeko, berriz, oinarri-oinarrian, hitzak eta puntuazio-markak besterik ez dugu.

Esan izan da ahozko diskurtsoaren etenak eta intonazioa islatzen dituela puntuazioak idatzizkoan, eta, ñabardurak ñabardura, horixe da haren funtzioetako bat. Izan ere, intonazioa eta esanahia bereizezinak dira, eta puntuazioak intonazioaren proiektzio idatzia izan nahi du. Ikus dezagun orain nola egiten duen lana puntuazioak, eta jolas dezagun adibideak ahots gora irakurtzen. Denok puntuatzen dugu ondo ahoz!

- (4) Amaia iritsi da.
 Amaia iritsi da?
 Amaia iritsi da!
 Amaia iritsi da...
 Amaia “iritsi” da.
 Amaia, iritsi da.
 –Amaia?
 –Iritsi da.
- (5) Si el hombre supiera realmente el valor que tiene la mujer, andaría a cuatro patas en su búsqueda¹.
 Si el hombre supiera realmente el valor que tiene, la mujer andaría a cuatro patas en su búsqueda.
- (6) Ama lasai aurkitu dute.
 Ama, lasai aurkitu dute.
 Ama, lasai: aurkitu dute.
- (7) Maria ez zen etxetik irteten inoiz igandeetan.
 Maria ez zen etxetik irteten; inoiz, igandeetan.
- (8) Joxe Migel Alberdi eta zu joango zarete. [Bi lagun]
 Joxe, Migel Alberdi eta zu joango zarete. [Hiru]
 Joxe Migel, Alberdi eta zu joango zarete. [Hiru]
 Joxe, Migel, Alberdi eta zu joango zarete. [Lau]
- (9) Zer moduz Ane?
 Zer moduz, Ane?
- (10) Ez zuen ikusi arbola atzean zegoen eta. [?!]
 Ez zuen ikusi arbola, atzean zegoen eta.
 Ez zuen ikusi, arbola atzean zegoen eta.
- (11) Benetan esan zuen. [Haren hitzetan ez zegoen txantxarik]
 Benetan, esan zuen. [Zin degizuet esan zuela]
- (12) Ni berriz joan naiz Mikel ikustera. [Beste behin ere joan nintzen]
 Ni, berriz, joan naiz Mikel ikustera. [Zu, ez, nonbait]
- (13) Etorri da, beraz; hari galdetuko diot.
 Etorri da; beraz, hari galdetuko diot.

1. Koma baten balioa, Julio Cortázar-en arabera: “Koma da pentsamenduaren ate birakaria”. Adibidea idazlearena da.

Aurreko adibideetan ikusi dugunez, esanahiaren eskakizunei lotuta dago puntuazioa. Bestela esanda, puntuazioaren eginkizuna da esaldien esanahia argitzen laguntzea, eta horretarako, ahozko intonazioa nola edo hala islatu behar du, intonazioa esanahiaren proiektzioa baita.

Eta esaldi bati intonazioa emateko, haren esanahia proiektatzeko, ezinbestekoa da testu-unitateak zehaztea, ondo markatzea, eta horrek eragina du hizkuntzaren hiru mailetan: maila fonikoan, sintaktikoan eta semantikoan. Horregatik da beharrezkoa ondo puntuatzea, eta markatu beharreko guztia markatzea: irakurleak testua ikusi ahala jakin behar du zein unitatetan dagoen; “situatuta” egon behar du. Errepidean bide-seinaleek nola, hala egiten dute puntuazio-markek testu idatzian.

2.2. *Bigarren portua.*
Puntuazioa: testu-egituraren eta testu-esanahiaren arteko zubia

Horrenbestez, puntuazio-markek zehaztu eta mugatu egiten dituzte testu-unitateak, esanahi-unitateak. Eta lan hori egiten dute ez bakarrik esaldia-
 ren barnean, baizik eta testu osoan; hala, testua hierarkikoki egituratzen dute, eta testu-unitate bakoitzari bere puntuazio-marka egokitzen diote:

Testu-unitatea		Puntuazio-marka
▪ testua	↔	▪ azken puntua (puntu eta kito)
▪ paragrafoa	↔	▪ puntu eta aparte (puntu eta bereiz)
▪ esaldia	↔	▪ puntu eta jarrai (puntu eta segi)

Hortaz, puntuatzen ikasteko abiapuntu egokia izan liteke aztertzea zernolako harremana dagoen puntuazioaren, testu-egituraren eta testu-esanahiaren artean. Eta berehala konturatuko gara testuaren egitura bera dela puntuazioaren eta semantikaren arteko harremanaren lehen isla. Izan ere, neurri handi batean, idaztea ideiak ordenatzea da, ideiak antolatzea, eta antolamendu horri egitura egokia ematea. Testuek egitura bat agertzen dute, testu-zati batzuk izaten dituzte, haien barne-antolamenduaren adierazgarri: paragrafoak.

Paragrafoa da testuaren antolamenduari forma eta egitura ematen dion baliabide nagusietako da. Horregatik, berebiziko garrantzia du paragrafoak ganoraz baliatzeak: hasteko, testuaren egitura erakusten diolako irakurleari eta ordena logikoa ematen diolako diskurtsoari, eta, gainera, idazleari laguntzen diolako ideia bakoitza non jarri behar den erabakitzen eta testuaren helbururako egokiak ez diren ideiak baztertzen, eta abar.

2.2.1. *Testua eta paragrafoak (Ikasle baten testutik abiatutako bidaia)*

Testuaren eraginkortasuna bermatzeko, beraz, ezinbestekoa da testua ondo egituratzea. Idazleak egin behar du lan hori; ez irakurleak. Irakurleari erraztu egin behar zaio lana, gure testuaz eta gure helburuaz jabetu dadin nahi badugu. Ideia hori mugarrria da puntuazioa lantzen hasteko, puntuazioa baita testuaren egitura agerian jartzeko baliabide nagusia.

Paragrafoa hasiera-hasieratik landu liteke ikasleen testuetan. Ikus dezagun testu erreal batean. Lehen mailako atarian dabilzan ikasle batzuei

eskatu diegu “Zertxobait niri buruz” izenburuko testua idatz dezaten, eta esan diegu testu hori oinarri izango dela aurrerago landuko dugun curriculuma idazteko. Bestalde, halako testuetan eman ohi diren datuen nolakotasuna aztertu dugu: norberaren datuak, ikasketak, lanbideari buruzkoak, zaletasunak... Ikasle batek testu hau entregatu digu:

ZERTXOBAIT NIRI BURUZ (1)

Maria Iriarte naiz. Donostian jaio nintzen orain dela berrogeita hamar urte.

Ezkontuta egon nintzen baina orain ez naiz horretaz gogoratzen.

Alaba bat daukat. Bere izena Irtati da eta hogeita lau urte ditu.

Donostian bizi naiz eta Diputazioan lan egiten dut. Ondare eta Arkitektura zerbitzuan. Gure lana Diputazioko eraikinak zaintzea da. Baina ez eraikin guztiak, gure departamentukoak baizik.

Zaletasun asko ditut. Hauek dira: mendiak igotzea, udan hondartzara joatea, palan jolastea, kirolak telebistan ikustea (futbola, 1 formulako lasterketak, motor-lasterketak, atletismoa...), eta abar.

Lehen begiratuan, irakurtzen hasi aurretik alegia, testuak ematen digun informazioa da bost paragrafo dituela, bost puntu eta aparte dituenez. Eta horrek aditzera ematen du esanahi aldetik testuak bost zati dituela, bost informazio-multzo. Harrigarria –are, susmagarria– egingo zaigu ikustea zein laburrak diren lehen hiru paragrafoak, baina hori da, hasteko, testuak ematen digun informazioa.

Testua irakurritakoan, baina, frogatuta geldituko da gure susmoek bazutela oinarririk: testua ez dago ondo egituratuta; testuaren itxurak ez du testua egoki proiektatzen. Izan ere, lehen hiru paragrafoetako datuak mota berekoak dira, datu pertsonalak edo norberaren datuak deitu ohi direnak. Hala, testuak hiru datu-mota ematen dituenez (norberaren datuak, lanbideari buruzkoak eta zaletasunei buruzkoak), testuaren itxurak ere hori adierazi behar du, informazio hori eman behar du. Informazioa, beraz, hiru multzotan, hiru testu-unitatetan antolatuta behar da:

ZERTXOBAIT NIRI BURUZ (2)

(Norberaren datuak)

Maria Iriarte naiz. Donostian jaio nintzen orain dela berrogeita hamar urte. Ezkontuta egon nintzen baina orain ez naiz horretaz gogoratzen. Alaba bat daukat. Bere izena Irtati da eta hogeita lau urte ditu.

(Lanari buruzko datuak)

Donostian bizi naiz eta Diputazioan lan egiten dut. Ondare eta Arkitektura zerbitzuan. Gure lana Diputazioko eraikinak zaintzea da. Baina ez eraikin guztiak, gure departamentukoak baizik.

(Zaletasunak)

Zaletasun asko ditut. Hauek dira: mendiak igotzea, udan hondartzara joatea, palan jolastea, kirolak telebistan ikustea (futbola, 1 formulako lasterketak, motor-lasterketak, atletismoa...), eta abar.

Testuaren itxura, orain, bat dator haren edukiarekin, haren esanahiarekin. Bigarren paragrafoan, halere, bada tokiz kanpo dagoen datu bat, ez baita lanari buruzkoa; datu hori egokiago dago lehen paragrafoan. Ikusiko dugu aurrerago nola txertatu.

Horrenbestez, testuaren forma eta testuaren edukia doitu ditugu, baina orain gauza bera egin beharra dago paragrafoen barnean. Har dezagun, adibidez, bigarren paragrafoa:

(Lanari buruzko datuak)

Diputazioan lan egiten dut. Ondare eta Arkitektura zerbitzuan. Gure lana Diputazioko eraikinak zaintzea da. Baina ez eraikin guztiak, gure departamentukoak baizik.

2.2.2. Paragrafoak eta esaldiak

Lehen begiratuan ateratzen dugun informazioa da paragrafo horrek lau esaldi dituela, hiru puntu eta segi dituenek. Eta horrek aditzera ematen du esanahi aldetik maila berean dauden lau testu-unitate dituela paragrafoak, lau informazio-multzo. Baina paragrafoa irakurritakoan, argi ikusten da maila berean dauden bi informazio-multzo baino ez direla:

(Lanari buruzko datuak)

Diputazioan lan egiten dut [LANA NON]. Ondare eta Arkitektura zerbitzuan [LANA NON, zehaztapena]. Gure lana Diputazioko eraikinak zaintzea da [ZER LAN]. Baina ez eraikin guztiak, gure departamentukoak baizik [ZER LAN, zehaztapena].

Berriz ere gertatzen da paragrafoaren itxurak ez duela egoki proiektatzen haren edukia: bi informazio-multzo ditugu, baina lau esaldi. Doikuntza-lana egin behar da, beraz, eta informazio-multzo bakoitza esaldi batera bildu:

(Lanari buruzko datuak)

Diputazioan lan egiten dut, Ondare eta Arkitektura zerbitzuan. Gure lana Diputazioko eraikinak zaintzea da, baina ez eraikin guztiak, gure departamentukoak baizik.

2.2.3. Esaldia eta perpausak

Antolatu ditugu paragrafoak, eta orain esaldiei eta haien barnekoari erreparatuko diegu. Esaldiaren baitako unitateak markatzeko eta haiek hierarkikoki antolatzeko, puntu eta koma (;), bi puntuak (:) eta koma (,) ditugu. Hala, puntu eta koma batek edo bi puntuek bereizten (edo elkartzen) dituzten zatiak eta koma batek bereizten dituenak ez dira maila berekoak:

- (14) Ez dut joateko gogorik; mesedez, joan zaitetz zu.
- (14a) Ez dut joateko gogorik.
- (14b) Mesedez, joan zaitetz zu.

- (15) Gureak ez du irtenbiderik: zu egunez bizi zara; ni, berriz, gauez.
 (15a) Gureak ez du irtenbiderik.
 (15b) Zu egunez bizi zara; ni, berriz, gauez.
 (15b.1) Zu egunez bizi zara.
 (15b.2) Ni, berriz, gauez [bizi naiz].

Aurreko adibideetan ikusten denez, puntu eta komak eta bi puntuek maila bereko unitateak elkartzen dituzte.

Hona iritsita, komeni da esaldia zer den definitzea, eta esaldia eta perpausa bereiztea. Esaldia da testu-unitate bat: esanahi osoa duen testu-unitaterik edo komunikazio-unitaterik txikiena. Hierarkikoki, testuaren eta paragrafoaren azpitik dago, eta, hasteko behintzat, esango dugu bi punturen artean idazten dela esaldia:

(16) Maria Iriarte naiz.

(17) Ezkonduta egon nintzen, baina orain ez naiz horretaz gogoratzen.

Horrenbestez, esanahi-unitate bat den aldetik, esaldia unitate semantikoa da. Perpausa, aldiz, unitate sintaktikoa da, handiena, eta aditz batek eta haren osagaiek eratzen dute. Aurreko esaldiei erreparatuta, (16) esaldian perpaus bakarra dago (perpaus bakuna), naiz aditzaren inguruan harilkatzen diren elementuez (*ni / Maria Iriarte*) osatua. Esaldi horren barnean ez dago puntuazio-markarik; izan ere, ez dago perpausaren baitako ez den ezer, eta, beraz, ez dago zer markatu, zer seinalatu. Esaldi batek puntuazio-markarik ez izateak esan nahi du perpaus bakar batez osatua dagoela –aditz bakar batez, alegia– eta ez dagoela elementurik perpaus horren baitakoa ez denik.

Azter dezagun, orain, honako esaldi honen puntuazioa:

(18) Donostian [NON] jaio nintzen orain dela berrogeita hamar urte [NOIZ].

Esaldi horretan, perpaus bakarra dugu (NON jaio NOIZ) ala aditz bera duten bi perpaus (NON jaio, NOIZ jaio)?

(18) Donostian jaio nintzen, orain dela berrogeita hamar urte (jaio ere).

Beste adibide honetan argiago ikusiko dugu, inork ez baitu zalantzan jarriko honako esaldi hauek ezberdinak direla:

(19) Maitek beste haur bat adoptatu du bigarren senarrarekin. [Maitek badu beste haur adoptaturik bigarren senarrarekin].

(19a) Maitek beste haur bat adoptatu du, bigarren senarrarekin. [Maitek badu beste haur adoptaturik, baina bigarren senarrarekin adoptatzen duen lehena da nonbait].

Esan liteke (19a) esaldian aditz bera duten bi perpaus ditugula, eta bigarren perpausoko aditza elipsian dagoela. Elipsi horrek iradokitzen du bigarren perpausak nolabaiteko mendekotasuna duela lehenarekiko:

(19a) Maitek beste haur bat adoptatu du, bigarren senarrarekin (adoptatu ere).

Lehen esan dugunez, puntuazioaren funtzioa da esaldiaren esanahia argitzen laguntzea, eta horretarako, intonazioa nola edo hala islatu behar du, intonazioa esanahiaren proiektzioa baita. Eta esaldi bati intonazioa emateko, haren esanahia proiektatzeko, ezinbestekoa da haren testu-unitate sintaktikoak zehaztea, ondo markatzea.

(19a) esaldian, komak bi testu-unitate bereizten ditu, eta hala adierazten du zer intonazio eman behar zaion esaldiari, nola “irakurri” behar den, eta, beraz, zer esan nahi duen:

(19a) Maitek ↑ beste haur bat adoptatu du ↓↓ bigarren senarrarekin
↓↓↓

Komarik ez egoteak, berriz, testu-unitate bakarra dagoela adierazten du, eta informazio horrek bide ematen digu esaldiari bestelako intonazio bat emateko, bestela “irakurtzeko”, eta, beraz, bestela interpretatzeko:

(19) Maitek ↑ beste haur bat adoptatu du → bigarren senarrarekin
↓↓↓

Horrenbestez, (18) esaldira itzulita, hor ere koma jarriko dugu esaldia osatzen duten bi testu-unitate bereizteko: lehenengoa, perpaus osoa da, eta, bestea, berriz, perpaus-zatia. Egia da kasu honetan ez dagoela esanahia bi eratara interpretatzeko aukerarik, baina komak berdin bete behar du bere funtzioa:

(18) Donostian jaio nintzen, orain dela berrogeita hamar urte [jaio ere].

2.2.4. Esaldiak esaldiaren barnean

Eta orain, gure ikaslearen testuari berriz ere helduta, beste esaldi bat erantsi behar diogu aurreko esaldiari: Donostian bizi naiz. Esaldi bieireparatuta, badirudi eta juntagailuaren bidez elkartzea izan litekeela bidea:

(18) Donostian jaio nintzen, orain dela berrogeita hamar urte, eta Donostian [han] [bertan] bizi naiz.

Eta galdera izan liteke: zergatik eta juntagailuaren aurreko koma hori? Zuzenean erantzun baino lehen, itzulinguru bat egingo dugu. Jakina denez, euskarak bi prozedura sintaktiko ditu perpausak elkartzeko: bata, juntagailu edo menderagailu bidezkoa –juntadura eta menderakuntza, hurrenez hurren– eta, bestea, juntagailurik edo menderagailurik gabekoa –alborakuntza–.

(10) Ez zuen ikusi, arbola atzean zegoen **eta**. [Menderakuntza].

(20) Mikeli entzunda jakin zuen zer gertatzen zen. [Menderakuntza].

(19a) Maitek beste haur bat adoptatu du, bigarren senarrarekin (adoptatu ere). [Alborakuntza].

- (14) Ez dut joateko gogorik; mesedez, joan zaitetz zu. [Alborakuntza].
 (14a) Ez dut joateko gogorik.
 (14b) Mesedez, joan zaitetz zu.
- (21) Egia da: Mikel ez da inoiz hemen izan. [Alborakuntza].
- (17) Ezkonduta egon nintzen, **baina** orain ez naiz horretaz gogoratzen. [Juntadura].

Ikusten denez, juntadura edo menderakuntza izan bi perpaus elkartzeko erabiltzen den prozedura, puntuazioak berdin egiten du lan.

Esate baterako, (10) esaldian, komak adierazten du bi testu-unitate dau dela [EZ ikusi (perpaus nagusia edo perpaus osoa); ZERGATIK ez ikusi (mendeko perpausa)], eta, bide batez, haien arteko muga markatzen du:

- (10) Ez zuen ikusi, arbola atzean zegoen eta.

Eta (20) esaldian, berriz, komarik ezak adierazten du testu-unitate bakarra dagoela [mendeko perpausa aditz nagusiaren galdegaia da (NOIZ jakin ZER)]:

- (20) Mikeli entzunda jakin zuen zer gertatzen zen.

Bestalde, juntagailu bidez elkartzen diren perpausak beti dira maila berekoak:

- (17) Ezkonduta egon nintzen, baina orain ez naiz horretaz gogoratzen.

(10) eta (17) esaldiei erreparatuta, galdera izan liteke: orduan, koma batek berdin balio du perpausen arteko parekidetasuna adierazteko eta perpausen arteko mendekotasuna adierazteko? Ez. Esan dezakegu juntagailu bidezko perpaus-elkartzeetan juntagailuak eta puntuazioak batera egiten dutela lan, eta, nolabait esateko, juntagailuak gradu bat igotzen duela komaren balioa. Bestela esanda, juntagailurik ez balego, koma ez litzateke nahikoa izango bi perpaus oso (bi esaldi) elkartzeko.

Horrenbestez, (18) esaldian, eta juntagailuak eta haren aurreko komak, biek batera, esaldiaren egitura adierazten digute:

- (18) Donostian jaio nintzen, orain dela berrogeita hamar urte, eta bertan bizi naiz.
 (18a) Donostian jaio nintzen, orain dela berrogeita hamar urte
 (18a-1) Donostian jaio nintzen.
 (18a-2) orain dela berrogeita hamar urte (jaio ere).
 (18b) Donostian bizi naiz.

Beraz, (18) adibidean bezala juntagailuak perpaus osoak edo esaldiak lotzen dituenean, Juan Garziarekin (1997) bat etorritik, arrazoi bat baino gehiago dago esateko estrategia hobea dela juntagailuaren aurrean koma jartzea, ez jartzea baino; besteak beste, hala jokatuta garbi utziko dugulako juntagailuaren ondoren datorrena esaldi bat dela. Guk bide horri eutsiko diogu.

Bide beretik, gure ikaslearen testura berriro itzulita, koma jarriko dugu eta juntagailuaren aurrean:

(22) [Alaba bat daukat.] Bere izena Irati da, eta hogeita lau urte ditu.

Baina testu-zatiak eta haien arteko hierarkia-harremanak testuaren osotasunean aztertu behar dira. Azter dezagun aurreko testu-zatia bere paragrafoaren baitan:

(Norberaren datuak)

Maria Iriarte naiz. Donostian jaio nintzen, orain dela berrogeita hamar urte, eta bertan bizi naiz. Ezkonduta egon nintzen, baina orain ez naiz horretaz gogoratzen. Alaba bat daukat. Haren izena Irati da, eta hogeita lau urte ditu.

Paragrafo horretan lau informazio-multzo daude, baina puntuz bereizitako bost esaldi. Azken bi esaldiek laugarren informazio-multzoa osatzen dute (alaba mintzagai bera dutenez). Gauzak horrela, egokiago dirudi azken esaldi horiek batera biltzea:

(22a) Alaba bat daukat: Irati du izena, eta 24 urte ditu.

(22b) Alaba bat daukat, 24 urtekoa; Irati du izena].

(22c) Alaba bat daukat, 24 urtekoa, eta Irati du izena].

(22d) Alaba bat daukat, 24 urtekoa: Irati].

(22e) Alaba bat daukat, Irati izenekoa, eta 24 urte ditu.

(...)

Gure ikaslearen testua, horrenbestez, honela geldituko da:

ZERTXOBAIT NIRI BURUZ (3)

(Norberaren datuak)

Maria Iriarte naiz. Donostian jaio nintzen, orain dela berrogeita hamar urte, eta Donostian bizi naiz. Ezkonduta egon nintzen, baina orain ez naiz horretaz gogoratzen. Alaba bat daukat, 24 urtekoa: Irati.

(Lanari buruzko datuak)

Diputazioan lan egiten dut, Ondare eta Arkitektura zerbitzuan. Gure lana Diputazioko eraikinak zaintzea da, baina ez eraikin guztiak, gure departamentukoak baizik.

(Zaletasunak)

Zaletasun asko ditut, besteak beste, mendiak igotzea, udan hondartzara joatea, palan jolastea, kirolak telebistan ikustea (futbola, 1 formulako lasterketak, motor-lasterketak, atletismoa...), eta abar.

3. Azken portua (oraingoz): puntuazioari buruzko dekalogoia

Puntuazioa da testu bat ondo interpretatu ahal izateko testuak berak eman diezagukeen informazio-iturri nagusietariko bat. Testua antolatu eta egituratu egiten du puntuazioak, eta, hala, sintaxiarekin batera, testuaren esanahia argitzen laguntzen du. Zer egin behar dugun ondo puntuatzeko? Hona hemen nire ustez merezi duten hamar jakingarri.

BAT. Puntuazio-markaren batekin mugatu behar da testuan muga daitekeen guztia.

BI. Puntu eta kito da markarik gorena, berak mugatzen baitu testua. Haren azpiko puntuazio-markek testu-zatiak mugatu eta hierarkikoki antolatzen dituzte:

Testu-unitatea		Puntuazio-marka
▪ testua	↔	▪ azken puntua (puntu eta kito)
▪ paragrafoa	↔	▪ puntu eta aparte (puntu eta bereiz)
▪ esaldia	↔	▪ puntu eta jarrai (puntu eta segi)
▪ esaldi barneko esaldia	↔	▪ puntu eta koma; bi puntu
▪ perpausa	↔	▪ koma

HIRU. Puntu eta aparte da paragrafoa mugatzen duen puntuazio-marka, paragrafoa grafikoki agerrarazten duena. Paragrafoa, hortaz, testu-unitate bat da, testuaren atal bat, eta osotasuna du, forma aldetik ez ezik, baita esanahi aldetik ere, testuaren edo gaiaren alderdi jakin bat garatzen baitu.

LAU. Puntu eta segi da esaldia mugatzen duen puntuazio-marka, esaldia grafikoki agerrarazten duena. Esaldia, hortaz, testu-unitate bat da, bi punturen artekoa, eta osotasuna du, forma aldetik ez ezik, baita esanahi aldetik ere, ideia edo pentsamendu bat azaltzen baitu.

BOST. Batzuetan, bi punturen arteko esaldiak bi esaldi edo gehiago ditu bere baitan. Halakoetan, puntu eta koma edo bi puntuak dira esaldi barneko esaldi horiek mugatzeko baliatu behar diren puntuazio-markak.

Poeta bazara, garbi ikusiko duzu paperezko orri honetan hodei bat dagoela airean. Hodeirik gabe, ez legoke euririk; euririk gabe, arbolak ez lirateke haziko; eta arbolarik gabe, ez legoke papera egiterik. [Anjel Lertxundi, Eskarmentuaren paperak, 7. or.]

Gorputzaren zati dira hatzak, ez zaizkio arrotzak, baina gorputzarekin zerikusi handirik ez balute bezalako autonomia dute haurrentzat: beren forma eta neurriarengatik, menderagarriak zaizkio; mugimendu eta arintasunarengatik, bizi deigarriak, gizakitxo batzuen antzekoak; beren funtzionaltasunarengatik, ezin egokiagoak eta guztiz esanekoak. [A. Lertxundi, Eskarmentuaren paperak, 11. or.]

SEI. Esaldi koordinatuak –hau da, juntagailu bidez lotuak– komaz bereizten dira. Esan liteke juntagailuak eta komak batera jokotuta lortzen dutela haietako batek bakarrik lortuko ez lukeena: esaldien arteko muga ondo markatzea.

Elbira Zipitriaren eskolakoa zen andereñoa, eta koaderno bat zeukan hainbat abesti, asmakizun, aho-korapilo, esaera zahar eta olerki berriekin bete. [A. Lertxundi, Eskarmentuaren paperak, 12. or.]

Azken urteotan asko aldatu dira gauzak, baina ez uste dugun bezainbeste. [A. Lertxundi, Eskarmentuaren paperak, 39. or.]

ZAZPI. Koma da markarik txikiena. Komaz mugatzen dira:

- Deikiak:

(9) Zer moduz, Ane?

- Enumerazioan doazen elementuak:

Baina kritikak baditu bere legeak, eta lege horiek ez dira beti gaizki-esatea izan litekeen bezain atseginak. Jorratzen diren obrak irakurri ere egin behar dira, kritikatuak dienez jabetu behar da eta irakurleari, kritikoaren iritziaz gainera, eman behar zaio zehazkiro besteak dienezaren berri. [MEIG 28, 129. or.]

- Aposizioak

(23) Datorren ostegunean, hilak 18, atek zabalik izango dituzte.

- Mendeko perpausak, hauek izan ezik: galdegai direnak (G), osagarri zuzenak (OZ), eta atzetik joanik esaldi-zati nagusiari bereziki lotuak daudenak (BL).

(24) Han ikusi zuenean ulertu zuen dena. (G)

(25) Esan dizut berandu etorriko zela. (OZ)

(26) Trena galduko duzu korrika joaten ez bazara. (BL)

ZORTZI. Puntuazio-markek batasuna eta osotasuna ematen diote mugatzen duten testu-zatiaren barnekoari. Irizpide horretan oinarritzen dira honako debeku hauek:

- Ez da koma bakar bat jarri behar subjektuaren eta aditzaren artean; jartzekotan, bi.
- Ez da koma jartzen aditzaren eta galdegaiaren artean.
- Ez da koma jartzen aditzaren eta haren osagarrien artean.

BEDERATZI. Batzuetan, komak binaka joan behar dira, tartekiak mugatzeko. Aposizioez aparte, edozein elementu izan liteke tarteki.

- Deikia:

(27) Badakizu, Ane, asko maite zaitudala.

- Lokailua:

(28) Zuk, dena den, ez esan ezer.

- Mendeko perpausa:

(29) Ane, aspertzen hasita baitzegoen, gelatik irten zen.

- Hainbat eratako azalpenak eta osagarriak:

(30) Hara joan zen, berriz ere, azalpen eske.

(31) Ane, beti bezala, lo seko gelditu zen.

HAMAR. Testu bat puntuatzeko orduan, osotasunaren ikuspegiari begiratu behar zaio. Berez ongi puntuaturik dauden bi zati elkarri lotzean, baliteke aldaketak egin behar izatea; osotasunak beste aukeraren bat egi-tera behar gaitzake askotan.

- (32a) Datorren astean, mendira joango gara.
- (32b) Botak probatu behar dituzue.
- (32) Datorren astean, mendira joango garenez, botak probatu behar dituzue. [?!]
- (32) Datorren astean mendira joango garenez, botak probatu behar dituzue.

4. Epilogo

Puntuazioa itsaso zabala da, emankorra eta aberatsa bezain ezin besarkatuzkoa. Horregatik, eta hala ere, merezi du ahaleginak egitea adostasun batera iristeko, denontzat baliagarri izango den puntuazio-eredu bat finkatzeko. Horretarako, puntuazio-marken erabilera-arauak zehaztea baino, puntuazioaren zertarakoak aztertzea eta adostea da ezinbesteko abiapuntua, eta bidea, berriz, puntuazioaren zubi-lana azalaraztea, sintaxiaren eta semantikaren artekoa, hain zuzen ere.

Merezi du puntuazioaren ahala jorratzea eta testuekin esperimintatzea, ikasgelan eta ikasleekin. Izan ere, puntuazioa lantzea bide ezin egokia izan liteke gure ikasleei laguntzeko beren testuak hobetzen. Azken finean, gure jardunaren helburua da ikasleen komunikazio-gaitasuna, ahozkoa zein idatzizkoa, areagotzen laguntzea.

Eta badugu zeri heldu, denok puntuatzen baitugu ondo ahoz; bidean, gainera, zer irabazi handia dugu.

Bibliografia

- Cassany, D. 1995. *La cocina de la escritura*. Bar-tzelona: Anagrama.
- Garzia, J. 1997. *Joskera Lantegi*. Vitoria-Gasteiz: HAEE-IVAPeko Argitalpen Zerbitzua.
- HAEE-IVAP. 2005. *IVAPeko estilo-liburua*. Vitoria-Gasteiz: HAEE-IVAPeko Argitalpen Zerbitzua.
- Lopetegi, E. 1993. *Hizkuntza zuzen erabiltzeko arau eta proposamen-bilduma*. Vitoria-Gasteiz: Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia.
- Zubimendi, J. R.; Esnal, P. 1993. *Idazkera-liburua*. Vitoria-Gasteiz: Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia.

Gehiago jakiteko

- Alberdi, X. 2001. *Euskal estilo libururantz; gramatika, estiloa eta hiztegia*. Bilbo: Euskal Herriko Unibertsitateko Argitalpen Zerbitzua.
- Benito Lobo, J. A. 1992. *La puntuación: usos y funciones*. Madril: Edinumen.
- Benito Lobo, J. A. 1993. *Manual práctico de puntuación*. Madril: Edinumen.
- Cassany, D. 1989. *Describir el escribir: cómo se aprende a escribir*. Bartzelona: Paidós.
- Cassany, D. 1999. *Construir la escritura*. Bar-tzelona: Paidós.
- Egunkaria. 2001. *Estilo Liburua*. Donostia: Egunkaria.

- Euskaltzaindia. 1987. *Euskal Gramatika. Lehen Urratsak-I (Eranskina) [Hitz-ordena]*. Bilbo: Euskaltzaindia.
- Euskaltzaindia. 1993. *Euskal gramatika laburra: perpaus bakuna*. Bilbo: Euskaltzaindia.
- Figueras, C. “La semántica procedimental de la puntuación” hitzaldia, in *I Congreso Internacional de Semántica*. Santa Cruz de Tenerife, La Lagunako Unibertsitatea, 1997.
- Garrido Medina, J. *Estilo y texto en la lengua*. Madril: Gredos.
- Martínez De Sousa, J. 1985. *Diccionario de ortografía*. Madril: Ediciones Generales Anaya.
- Martínez De Sousa, J. 1987. *Dudas y errores del lenguaje*. Madril: Paraninfo.
- Martínez De Sousa, J. 1995. *Diccionario de ortografía de la lengua española*. Bartzelona, Bibliograf, 1995.
- Martínez De Sousa, J. 1998. *Diccionario de usos y dudas del español actual* (2. ed.). VOX bilduma. Bartzelona: Bibliograf.
- Martínez De Sousa, J. 2003. *Manual de estilo de la lengua española*. Gijón: Trea.
- Roque, I. 2008. “Puntuazioaren argi-ilunak” EHUko Uda Ikastaroak, 2008 [linean] <<http://idazkola.files.wordpress.com/2011/07/puntuazioaren-argi-ilunak.pdf>>.
- Zubiri, I.; Zubiri, E. 2000. *Euskal Gramatika Osoa* (2. arg.). Bilbo: Didaktiker.